

LOGOTERAPIAREN KONTRA

Burua dute irakurketa izugarritz beteta
(Goethe)

1. Behin Valladoliden, doktoretza ikastaro batzuk egiten ni-harduela, halako kartel batekin egin nuen topo: ¿quieres conocer la causa del mal?. Telefono bat ematen zuten eta deitu egin nuen.

Apaiz gazte eta ondo preparatutakoak errezibitu ninduen, eta zen san Ignazioaren ariketa espiritualak egitea Burgosko komentu batean. Bertan, esplikazioen artean deabruaren jokamoldeaz, Ebanjelioaren pasarteak irakurtzen genituen. Nik notak hartzen nituen arreta handiz.

Baina gauzak okertu zitzaizkidan. Valladoliden, ni autoan psikiatrikora nindoala lan bat egitera, tipo bat ikusi nuen niri begira etengabe, eta beldurrak hartu ninduen, izuak ere, terrorea, eta poliziarri salatu nion tipo ezezagun hura. ETA izan zitekeen, ez nekien.

Apaizak gonbidatu ninduen kolegio bateko hurrekin kanpamendu batera joateko. Eta bertan nengoela mediku nire dendan Victor Frankl psikiatraren liburu nagusia topatu nuen: el hombre en busca de sentido. Nazien kontzentrazio kanpo batean igarotakoak kontatzen zituen. Eta nik sinetsi egin nuen bururaino niri gertatu behar zitzaidalana han zetorrena.

Irailean bueltatu nintzen Valladolidera hitzartuta nuelako irakasle batekin tesia (enbriologia esperimental), eta hasteko lanean, baina Bruselara zihoala erran zidan.

Erraten da nola kontzentrazio kanpo batean sartzeak psikosia eragiten duen, etengabea. Nik, irakurketa hartatik, hori irudikatu nuen eta alanbradurarik gabeko kontzentrazio kanpo batean nengoela irudikatu nuen, eta bizi izan nuen, birtualki bada ere. Bertan, diskoteka batean zen gauez, ez zegokion sudur batekin tipo oso zatarra ikusi nuen bazter batean. Ez zen estetika kontua. Eta denborarekin ondorioztatua dut hura deabrua zela, Hasierako liburuan bezala, suge bat hitz egiten duena, sugeari ez dagokio hitz egitea, hara hor deabrua. Nire galderari erantzuna. Baina munduak jada epaitua nengoen: eroa.

2. Eibarren, urte batzuk geroago, psikosi hark hartua nengoela, modulura joan nintzen. Eta emakume idazkariak galdeketa bat egin zidan, eta arriben izenak ematerakoan negarrari eman nion. Iruditu zitzaidan bizitasun osoz hila zela txikiena.

Psikiatrak familia terapia bat antolatu zuen, eta galdetzen zuen zer egin zitekeen, beste irtenbideren bat edo hola. Eta nik, halako batean, Txekoslovakiara ihes egitea, hor nire erantzuna.

3. Donostian jada, bloke sobietikoa deseginda zegoela, psikiatrari hori dena azaltzen nengoela behin baino gehiagotan erran nion nire erantzun "arraro" hortikan jakin ahalko zuela Eibarko psikiatrak zein zen nire psikosiaren gaia.

Beste behin erregalu bat egin nion, Iban Zalduaren komiki bat non ematen zen Hitlerrek irabazia zuela gerra. Begira, erraten nion, lotuta nire psikosiaren gaiarekin.

4. Behin, Donostian, kartel bat ikusi nuen deitzen Frankl irakurri zutenak, eta lagun batzuk bildu ginen. Bilkura moduko hartan emakume batek erran zuen irakurketa hark ha-

lako aldekotasuna eragiten zuela. Nik neure artean pentsatu nuen ezen nire baitan kontrakotasuna eragin duela Victor Franklen irakurtzeak.

5. Urte asko igaro dira. Eta Ukrainian gerra piztua zenean, telebistan eman zuten dokumental moduko bat, eta Errusia zale batek erran zuen kameren aurrean Europar Batasunean sartu nahi zutenak “nazistak” zirela.

6. Gara egunkarian ere, kasualitatez, behin artikulua bat irakurri nuen, eta Errusiarren antifaxismoarekin batera, erraten zuen artikulugileak hauxe faxismoa zela, darwinismo soziala, neoliberalismoa hitzarekin moztortua.

7. Konklusio gisa, ni katoliko antifaxista naiz. Batez ere, eta denen buru, katolikoa, Jainko nire Aita adoratu eta besteekin atsegina eta gozo izan, unibertaski. Baina politikan askatasun erlijiosoa eskatzen duen antifaxista naiz. Edo hobeto nahiago bada, gogoratu egiten dut san Joan Paulo II.ak ez zuela komunismorik ikasten, baina neoliberalismoa ere ez zitzaion batera gogoko, eta, estututa, uste dut, baieztatzen zuen ongiak irabaziko zuela. Gezurra bazirudien ere.

8. Eta gogora ere etortzen zaizkit Moisesen Jainkoaren egintza harrigarriak. Nire Aita dena. Hori dakidalarik Jesusen, Jaun bakarraren, bitartez.

9. Nik filosofiatik, neure teoretatik, aldaketa kulturala proposatzen dut, denei zuzentzen naizela. Eta ez nioke egiari hur emango esango ez banu ezen nik biografia baino historia klinikoa dudala. Eta historia kliniko hori sublimatu egiten dut artearen bitartez, eta neure gaixoari Adanen sindromea deitzen diot. Beti ere ibili naizelako gorilen artean naturalista haren moduan, lasai nagoela ematen.

Roman Garmendia